

Programazioaren aurkibidea

1. Sarrera

2. Metodologia

- Egitean oinarritutako metodoa
- Nola jokatu behar dute ikasleak eta irakasleak klasean?
- Testuak
- Komunikazio-estrategiak
- Nork bere kontura ikastea eta ikasteko estrategiak
- Nola zuzendu akatsak?

3. Helburuak eta edukiak

Oinarrizko Maila 1

- o Helburuak.
 - Zeintzuk dira Oinarrizko Maila 1eko helburuak?
- o Edukiak.
 - Zein funtzio linguistiko ikasi behar dira?
 - Nolako testuak irakurtzen dira?
 - Nolako testuak entzuten dira?
 - Nolako testuak idazten dira?
 - Zer gai jorratzen dira?
 - Zein hiztegi ikasten da?
 - Euskal Herriko kulturaz zer ikasten da?
 - Zer gramatika-egitura ikasten da?
 - Nola ikasten da?

Oinarrizko Maila 2

- o Helburuak.
 - Zeintzuk dira Oinarrizko Maila 2ko helburuak?
- o Edukiak.
 - Zein funtzio linguistiko ikasi behar dira?
 - Nolako testuak irakurtzen dira?
 - Nolako testuak entzuten dira?
 - Nolako testuak idazten dira?
 - Zer gai jorratzen dira?
 - Zein hiztegi ikasten da?
 - Euskal Herriko kulturaz zer ikasten da?
 - Zer gramatika-egitura ikasten da?
 - Nola ikasten da?
 - Zer estrategia erabiltzen da jarduera komunikatiboak burutzeko?

4. Ebaluazioa eta ziurtagiriak mailaka

- Sarrera
- Oinarrizko Maila
 - Trebetasun bakoitza neurtzeko irizpide espezifikoak
 - Azken probak (zehaztasunak eta puntuazioa)
 - Trebetasun bakoitza neurtzeko irizpide espezifikoak


Euskarako programazioa

1. SARRERA

Honako programazio hau EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialen Oinarrizko Mailako eta Tarteko Mailako curriculumean oinarrituta dago eta aldi berean jaso egiten ditu Erreferentzi Marko Europar Bateratuaren ekarpenak eta bere egiten du ikasketaren ikuspegi komunikatiboa. Programazio honi esker ikaslearengan eta beronek ikasteko eta komunikatzeko dituen beharretan zentratzen diren eskolen planifikazioa ahalbidetzen/errazten da.

2008/2009 ikasturtean ikaskuntza-maila berriak (Oinarrizko Maila , Tarteko Maila, Goiko Maila eta Gaitasun Maila) emango dira. Maila hauek bina mailez osatuta daude, Gaitasun Maila izan ezik (hau urte batez osatua).

Ikasle ofizialek matrikulatuta dauden mailako azterketa egingo dute. Maila batetik bestera pasatzeko ezinbestekoa izango dute azterketa gainditzea. Behin A2ri dagokion azterketa gaindituta **Oinarrizko Mailako Agiria** jasoko dute eta B1.2ri dagokiona gainditzean **Tarteko Mailako Agiria** jasoko dute.



*EMEB: Erreferentzi Marko Europar Bateratua.

2. METODOLOGIA

Egitean oinarritutako metodoa

Ikasleak arrazoi eta beharrian ezberdinak direla eta matrikulatzen dira HEn. Dena dela, gehienek ikasteko aukeratutako hizkuntza hori erabili egin nahi dute eta berorrek komunikatzea dute helburu. Ikaskuntzaren teoriak eta ikasgelako praktikek diotenez, eginez ikasten da ondoen. Honek esan nahi du hizkuntza bat ikasteko entzun, irakurri eta idatzi egin behar dela. Hau da, hizkuntzak eginez ikasten dira.

Kontua ez da hizkuntzaren inguruko edukiak azaldu eta ikastea, berori (egiturak, lexikoa...) erabiltzea baino. Hizkuntzaren erabilera bultzatu gura da: erregistroa eta gorputz adierazpena bezalako gaitasun pragmatikoak kontuan hartu testuinguru jakin batean, asmo ezagun batekin eta berbalagunarekin. Metodo honen ondorioz ikasleak ikasgelako zereginak, ikasten ari den hizkuntzan, bideratzeko aukera izango du.

Gai bat hartuta, berorren inguruko gizarte eta kultura ezaguerarekin batera komunikazio-estrategiak, lexikoa eta egitura gramatikalak lantzen dituzten jarduerak prestatzen dira.

Esate baterako:

Unitate didaktiko baten gaia "Janaria" bada, xede hizkuntzako herrialdeko errezetak (interneten esaterako) irakurri hiztegia ikasten da. Jarduera hori hobeto lantzeko aurretiaz ama hizkuntzan dauden mota horretako testuen ezaugarrien berri izaten da (estrategia).

Hiztegi hau buruz ikasten da eta erabili egiten du bakoitzak bere errezetetan, sukaldaritzazaleen fororen batean argitaratzeko.

Jaioterriko supermerkatuetako prezioak herrialde berrian daudenekin alderatzen dira (interneteko web orri batean sartuta). Honela, testuinguru horretan konparazioaren egitura gramatikalak aztertu, praktikatu eta ikasi egiten dira, behar direnean erabili ahal izateko.

Nola jokatu behar dute ikasleak eta irakasleak klasean?

Honelako atazak erabiliz gero, ikaslea bera izango da ikasgelako protagonista nagusia. Ikasleak berak hartzen du parte: beste batzuekin batera hitz egiten du, irakurri egiten du, entzun eta idatzi egiten du. Hau da, ikaskuntza-prozesuaren oinarriko pieza da.

Irakasleak, prozesu horren moderatzailea eta tutorea denez, bideak erraztu egin behar ditu. Oso garrantzitsua da irakasleak ikaslearen motibazioa piztea. Era berean, ikasgelan ikaslea ikasten ari den hizkuntzan jardutea bultzatu behar du. Horretarako ezinbestekoa da ikasgela leku atsegina izatea ikaslearen eginbeharretarako.

Honekin batera, ikaslea klasean parte hartzeko prest egotea eta gainerako ikaskuntza-prozesuan gogotsu aritzea guztiz beharrezkoa da.

Ikasleak bere interesak eta galderak azaltzen baditu, irakaslea kontuan izaten ahaleginduko da eta horrekin lotutako plangintza bideratuko du.

Testuak

Gelan benetako komunikazioa sortuko bada xede-hizkuntzan (adibidez, zelan ikasten den pentsatuz edo gairen bati buruzko iritziak emanez edo arazoren bat konpontzeko informazioa bilduz edo eskolako zuzendaritzakoei proposamenen bat idatziz...), argi dago bertan irakurri, entzun edo egiten diren testuek **benetakoak** izan behar dutena (Oinarriko Mailan ez oso erraztuak), horietatik izango direlako gelan egongo den benetako bizimoduaren isla.

Komunikazio-estrategiak

Irakurri, entzun, berba egin eta idazteko, edo komunikatu eta bitarteko egiteko hiztegia eta egiturak erabiltzen dira, baina horrezaz gainera **komunikazio-estrategiak** ere erabiltzen dira

ondo eta argi komunikatzeko. Ama-hizkuntzan ia beti konturatu barik erabiltzen dira estrategiok, beraz, xede-hizkuntzan ere bultzatu egin behar dira.

Adibidez:

- Egunkaria irakurtzean, titularrak irakurrita eta argazkiak ikusita jakin daiteke zer dioen artikulua. Dena ez da zehatz-mehatz irakurtzen, batzuetan gainera eta beste batzuetan zerbaiten bila baino. Egunkaria edo web orriren bat beste hizkuntza baten irakurtzen denean ere ez da hitzez hitz ulertu behar, estrategia bera erabili behar da.
- Tabernan, esaterako, ondokoak dioen guztia ulertu ez arren, arazo barik egin daiteke berba testuingurua ulertzen delako eta mimika eta keinuak egiten direlako. Xede-hizkuntzan ere baloratu egiten da teknika hau.
- Berba egitean, askotan esamoldeak esaten dira berbetan hasteko edo zerbait azaldu nahi denean zelan deitzen den burura etorri ez eta esan ahal izateko. Xede-hizkuntzan ere horrelako esamoldeak erabilia hobeto komunikatzen da eta elkarrizketari berba-etorri handiagoa ematen zaio.

Norberarena ez den hizkuntzan ere erabili eta bultzatu egin behar dira horrelako estrategiak, baina jakinda horrek ikasten laguntzen duela (ikus OM eta TM: Zein estrategia erabiltzen dira komunikazio-jarduerak burutzeko?)

Nork bere kontura ikastea eta ikasteko estrategiak

Hizkuntza bat ikastea aberasgarria da, baina denbora behar da; gainera ikasle bakoitzak bere esperientziak eta bere gaitasunak dauzka eta hortik hasten da beste gaitasun batzuk hartzen eta aberasten. Ikasle guztiak ez dira maila berean hasten eta bakoitzak bere erritmoan ikasten du. Hori dela eta, oso garrantzitsua da ikasleak **jakitea berak zelan ikasten duen** eta **zer egin behar duen ikasteko**, irakasleari eta klaseei hainbesteko garrantzia eman barik.

Ikaslea konturatzen bada zein gaitasun eta zein gabezia dauzkan, eta **zelan ikasi ikasten badu, autonomoagoa** izango da eta hori Hizkuntza Eskolen kasuan derrigorrezkoa da gelan bertan ematen diren klase-orduak ez direlako nahikoa maila horretako helburuak lortzeko.

Ikasteko estrategiak edukitzea ezinbestekoa da eta, beraz, klaseko jardueretako bat da.

Nola zuzendu akatsak?

Ikasleak, txarto esan arren, zerbait komunikatu nahi duen seinale dira akatsak. Jardunez ikasten da, beraz **derrigorrez egin behar dira hutsak**. Horiek zuzentzean ikasten da ondo egiten.

Garrantzi handikoa da klasean ikasleari auto-zuzentzen laguntzea, batez ere komunikazioa oztopatzen duten akatsak zuzentzen.

HELBURUAK ETA EDUKIAK MAILAKA

OINARRIZKO MAILA

OINARRIZKO MAILA 1.

HELBURUAK

Zeintzuk dira Oinarrizko Maila 1eko helburu orokorrak?

Oinarrizko Maila1 amaitutakoan ikaslea gai izango da

- **Ulertzeko** eguneroko gaiei buruzko edota gai pertsonalei buruzko elkarrizketa labur-laburrak (agurrak, aurkezpenak, eskerrak ematea eta barkamena eskatzea), argibide eta jarraibide sinpleak.
- **Ulertzeko** oinarrizko gestioetan (erosketak egin, ikastaro batean izen eman, hotel batean izen eman) esandakoaren alderdi garrantzitsuenak.
- **Ulertzeko** iragarki eta mezu laburren alderdi garrantzitsuenak.
- **Ulertzeko** oharrak, mezu pertsonal laburrak (SMSak, mezu elektronikoak, postalak) eta iragarki publikoak (“Salgai”, “...behar da/dut”...)
- **Ulertzeko** ohiko lexikodun testu laburrak eta haietatik **ateratzeko** aurretik jakin daitekeen informazio global eta espezifikoa.
- **Ulertzeko** fitxak eta inprimakiak betetzeko oinarri-oinarrizko jarraibideak.
- **Ulertzeko** leku publikoetan ohikoak diren oinarrizko informazio, argibide eta jarraibide laburrak (kaleetako, dendetako, jatetxeetako eta garraio bideetako idazkunak eta kartelak).
- **Erabiltzeko** ohiko adeitasun-formulak (agurtu, norbait aurkeztu, eskerrak eman, barkamena eskatu, norbaiti buruz galdetu).
- **Eskatzeko eta eskaintzeko** eguneroko bizitzako gauzak eta mesedeak
- **Eskatzeko eta eskaintzeko** informazio pertsonala (herritartasuna, bizilekua, jarduerak, interesak, familia, lagunak, eguraldia, etab.).
- **Egiteko** hurrengoan aurkezpen eta deskribapen soilak: pertsonak, lekuak, jarduerak eta interesak
- **Idatzeko** oharrak, eguneroko bizitzako jarduerekin loturiko oinarri-oinarrizko informazioa, argibideak eta jarraibideak emanez (“etxea behar dut”).
- **Idatzeko** gutun pertsonal soil-soilak (postalak) eredu jarraituz.
- **Idatzeko** gai ezagunei buruzko testu laburrak, oinarrizko lokailuak erabiliz (eta, edo, baina, -(e)lako)

EDUKIAK

Zer funtzio linguistiko ikasi behar dira?

Helburu hauek lortzeko hurrengo funtzio linguistikoak burutzen ikasiko du ikasleak:

1. Informazio orokorra eman eta eskatu.

- Eman eta eskatu datu hauek: izena, adina, abizena, egoera zibila, herritartasuna, lanbidea, telefono zenbakia, helbidea, posta elektronikoa...
- Informazioa eskatu eta eman hauei buruz: pertsonak (lanbidea, familia, trebetasunak, gustuak, zaletasunak), ordutegiak, datak, menuak, lekuak (eskola eta bizilekua), janari eta edari kantitateak...
- Galdetu eta adierazi norena den zerbeit.
- Deskribapen sinpleak egin pertsona, gogo-aldarte edota gorputz itxurenak.
- Ohiko ekintza edo oraingo ekintzei buruz aritu.
- Hitz egiteko unean gertatzen ari diren ekintzei buruz aritu.
- Deskribatu pertsonak, gauzak (jantziak, altzariak, eraikinak eta eraikinetako gelak), egoerak eta ekintzak.
- Hitz egin klimari buruz.
- Aurkitu eta espazioan kokatu gauzak (ikasgelako, etxeko eta herriko gauzak).

- Adierazi zerbait edo norbait hurbil ala urrun dagoen.
- Kontatu iraganeko ekintza edo gertakari bat eta hari buruz galdetu.
- Nork bere burua zuzendu eta zalantza egin.
- Azalpenetan, gauzak banan-banan aipatu.
- Definizioak eman.
- Ezjakintasuna edo ezagutza adierazi gertakari baten aurrean.
- Aurreikuspenak eta iragarpenak egin.
- Planei eta proiektuei buruz aritu.
- Helburuak finkatu (asmoak eta promesak).
- Denborazko sekuentzia adierazi.
- Hitz eskatu, eman, kendu eta besteei hitz egiten utzi.

2. Jarrerak eta iritziak adierazi eta baloratu.

- Gustuei buruzko informazioa eskatu eta eman
- Ezjakintasuna edo ezagutza adierazi.
- Osasunari buruzko eta sentipen edo egoera fisikoari buruzko informazioa eskatu eta eman: hotza edo beroa, gosea edo egarria, logura, zaporea, ongizatea edo ondoeza.
- Barkamena eskatu eta barkatu.
- Zalantza adierazi.
- Adostasuna edo ezadostasuna adierazi.
- Lehentasunak adierazi.
- Hautua adierazi.
- Axola-gabezia adierazi.
- Harridura eta txundidura adierazi.
- Errukia adierazi.
- Nahia adierazi.
- Ohiko gogo aldarte eta berauen arrazoiei buruzko informazioa eskatu eta eman: asperdura, gogobetetasuna edo nahigabea, mirespena, interesa, estimua, poza etab.

3. Limurtzea, konbentzitzea

- Laguntza eskatu eta eskaini.
- Ikasgelako jardueri buruzko aginduak eman.
- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman edo ukatu.
- Laguntza eskaini, eskatu, onartu edo errefusatu.
- Zerbait egitera animatu norbait.
- Jarraibideak eskatu eta eskaini (helbideak, norabait nola heldu).
- Lankidetzak eskatu.
- Astiroago hitz egiteko edo mezua errepikatzeko eskatu.
- Hitz edo esamolde esanahia edo itzulpena galdetu eta adierazi.
- Ulertu ez den hitz edo izen berezi bat letraka esateko eskatu.
- Ahotsa modulatzeko eskatu: ozenago hitz egiteko, isilago...
- Zerbait egiteko asmo, gogo edo erabakiaren berri eskatu eta eman.
- Betebehar pertsonalak adierazi.
- Aholkuak eskatu eta eman.
- Sorospena eskatu.
- Debekuak adierazi.
- Hitzordua adostu, elkartzeko geratu.
- Oinarrizko telefono-elkarrizketak mantendu (agurtu, komunikazioa abiatu, norbaitez galdetu, solaskideari itxaroteko eskatu, entzuten edo ulertzen den ziurtatu).
- Norbait animatu jarraitzera.

4. Sozializatzea

- Agurtu eta agurrari erantzun.
- Norbera aurkeztu, besteak aurkeztu eta aurkezpen bati erantzun.
- Norbaiti buruzko informazioa eskatu eta eman.
- Eskerrak eman eta esker emateari erantzun.
- Zorionak eman eta zorion emateari erantzun.
- Arreta erakarri.
- Ongietorria egin.
- Oinarrizko mezu bat errepikatzea.

- Esandakoa ulertu dela adierazi edo komunikazioa aurrera doala erakutsi.
- Gonbita onartu edo errefusatu.
- Barkamena eskatu.
- Informazio edo kontakizun baten aurrean, interesa, harridura, ezustekoa, poza, tristura agertu.
- Mezu bat ulertu dela egiaztatu.

Nolako testuak irakurtzen dira?

- Gutun pertsonalak.
- Aginduak eta jarraibideak:errezetak, tresnak erabiltzeko jarraibideak, leku batera joateko argibideak.
- Mezuak.
- Posta elektronikoa.
- Curriculum vitaeak.
- Panelak eta oharrak.
- Ordu-tegiak eta egutegiak.
- Informazio idazkunak, erregulazioak.
- Menuak eta kartak.
- Planoak eta kale izendegiak.
- Formularioak eta galdeketak.
- Propaganda eta publizitate esku-paperak.
- Aldizkari eta egunkarietako artikuluko errazak.
- Komikiak, tebeoak eta binetak.
- Horoskopoak.
- Turismo, bidaia eta aisialdirako gidak.
- Publizitate testuak.
- Web orrialdeak.
- Oraingo eta iraganeko gertakariei buruzko narrazio eta deskribapenak.
- Egokituriko eleberriak.

Nolako testuak entzuten dira?

- Lagunarteko elkarrizketak, lagunekin, senitartekoekin, lankideekin..
- Elkarrizketak banketxeetan, dendetan, agentzietan...
- Telefono elkarrizketak
- Erantzungailu automatikoaren mezuak
- Lan elkarrizketak
- Telebista eta irratiko informazioa
- Iragarki publikoak, publizitate iragarkiak...
- Albiste laburrak.
- Eguraldi iragarpenak.

Nolako testuak idazten dira?

- Gutun pertsonalak
- Gutun formal edo komertzial sinpleak.
- Mezuak.
- Posta elektronikoa.
- Curriculum vitaeak.
- Panelak eta oharrak.
- Informazio idazkunak, erregulazioak.
- Formularioak eta galdeketak.
- Oraingo eta iraganeko gertakariei buruzko narrazio eta deskribapenak

Zer gai jorratzen dira?

- Identifikazio pertsonala.
- Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua.
- Eguneroko bizitzako jarduerak.
- Aisialdia.
- Bidaiak.
- Giza harremanak eta harreman sozialak.

- Osasuna eta zainketa fisikoak.
- Hezkuntza.
- Erosketak eta merkataritza jarduerak.
- Elikadura.
- Ondasunak eta zerbitzuak.
- Hizkuntza eta komunikazioa.
- Klima, baldintza atmosferikoak eta ingurumena.
- Zientzia eta teknologia

Zein hiztegi ikasten da?

Identifikazio pertsonala.

- Pertsonen izaera, trebetasunak eta deskribapen fisikoari loturiko oinarrizko lexikoa.
- Jantzera eta osagarriari loturiko lexikoa.

Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua.

- Etxebizitza: motak, kokapena, atalak eta banaketa.
- Altzariak, aparailuak eta tresnak.
- Hiria: kokapena, kaleak, eraikinak, berdeguneak eta monumentuak.
- Ikasiko den hizkuntzaren herriaren banaketa territoriala.

Eguneroko bizitzako jarduerak.

- Denbora tarteei loturiko lexikoa: urteak, hilak, asteak, egunak, egunaren atalak, eta ordua.
- Etxeko, laneko edo ikastetxeetako jarduerari loturiko oinarrizko lexikoa.

Aisialdia.

- Jarduerari loturiko lexikoa: kirolak, kultur jarduerak...
- Aisiguneak: antzokiak, museoak, hondartza...

Bidaiak.

- Turismo eta emigrazioari loturiko lexikoa.
- Garraiobideak.
- Herrien izenak.

Giza harremanak eta harreman pertsonalak.

- Familia bateko partaideen izenak.
- Adiskidetasun, sentimendu eta maitasunari loturiko lexikoa.
- Lan munduari loturiko lexikoa.

Osasuna eta zainketa fisikoak.

- Gorputz atalak.
- Gaixotasunak eta sintomak.
- Osasun munduari loturiko lexikoa.

Hezkuntza.

- Hezkuntzari loturiko lexikoa: ikastetxeak, ikasgaiak, kalifikazioak, ziurtagiriak...
- Eskolako material eta jarduerari loturiko lexikoa.

Erosketak eta merkataritza jarduerak.

- Erabilera pertsonaleko ohiko tresnen izenak.
- Merkataritza guneak eta dendak.
- Prezioak, txanponak, ordainketa moduak...

Elikadura.

- Jatorduen izenak.
- Elikagai eta ontzi motei loturiko lexikoa.
- Janariarekin zerikusia duten tresnen izenak.
- Kantitateak, pisuak eta neurriak.

Ondasunak eta zerbitzuak.

- Zerbitzu publiko eta pribatuak: udaletxea, postetxea, liburutegia, kultur guneak...

Hizkuntza eta komunikazioa

- Hizkuntzaren irakaskuntzari loturiko oinarritzko lexikoa.
- Munduko hizkuntza ezberdinak.
- Hedabideak: telebista, irratia...

Klima, baldintza atmosferikoak eta ingurumena.

- Fenomeno atmosferiko eta klimatikoak.
- Urtaroak
- Elementu geografikoak

Zientzia eta teknologia

- Telefonoari loturiko lexikoa.
- Ordenagailu, Internet eta beste hedabide batzuei loturiko lexikoa.

Euskal Herriko kulturaz zer ikasten da?

Identifikazio pertsonala.

- Izen eta abizen ohikoenak.

Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua.

- Etxebizitza mota ohikoenak.
- Oinarritzko ezaugarri geografikoa.

Eguneroko jarduerak

- Lan baldintzak eta lan bilaketa.
- Gizartearen ezaugarriak.

Aisialdia

- Aisialdiko jarduera ohikoenak.
- Erreferente artistiko eta kulturalak.
- Ospakizunik esanguratsuenak.

Giza harremanak eta harreman sozialak

- Familia bizitzako usadio eta ohiturak.
- Familia egitura.

Elikadura

- Elikadura ohiturak eta gastronomia.
- Ospakizun jakin batzuetako janari tipikoak.

Zientzia eta teknologia

- Informazio eta komunikazioko teknologia berrien presentzia.

Zer gramatika-egitura ikasten da?

Fonologia, ortografia eta gramatika-gaitasun linguistikoak bitarteko bat dira komunikatzen laguntzeko, guztiak biltzen dituen komunikazio-gaitasun linguistikoa lortzeko. Gaitasun hauek, beraiek parte hartzen duten atazak burutuz geureganatzen ditugu.

Testu-gaitasuna

Testuak (idatziak zein ahozkoak) ulertzeko eta ekoizteko xedez, testuaren ezaugarriak ezagutu eta kontuan hartu beharko dira:

Egokitzapena

- Komunikazio asmoa.
- Testuingurua eta egoera.
- Hizkuntza erregistroa eta maila.

- o Testu motak.

Koherentzia

- o Edukiaren egituraketa.
- o Ideia nagusiak eta bigarren maiakoak.
- o Lexiko hautaketa eta hizkuntza funtzioak.

Kohesioa

- o Prosodia eta ortografia elementuak (intonazioa eta puntuazioa).
- o Anafora elementuak (izenordainak, izenen elipsia, sinonimia, semantika multzoak...).
- o Testu antolatzaile eta lokailuak:
 - ✓ Espazio antolatzaileak
 - ✓ Denbora antolatzaileak
 - ✓ Esaldi koordinatu eta menpekoen arteko lokailuak.
 - ✓ Esaldi eta paragrafoen arteko lotura eta logika antolatzaileak.
 - ✓ Ahozko diskurtsoa bideratzeko edo mantentzeko lokailu eta antolatzaileak.

Fonetika eta fonologia-gaitasuna

Hots eta fonema bokalikoak

- o Diptongoak: <ai> aizu, <ei> zein, <oi> goi, <au>auzo, <eu> euri
- o Hiatoak: gizonei, ehun

Hots eta fonema kontsonantikoak

- o Ahoskera <g>: geografia, filologia...
- o Ahoskera <j>: joan, erloju...
- o Ahoskera <s/ts> soinu, lotsa, <z/tz> aza, hitz, <x/tx> muxu, txori...
- o Maileguen egokitzen: funtzionario, denda...

Prozesu fonologikoak

- o Palatalizazioak: in> [ñ] baina>[baña], il>[ill] mutila>[mutilla]
- o Gorketak: ez daukat>[eztaukat]
- o Asimilazioak: ez naiz>[enaiz]

Perpauen tonua: galderak, aginteak, harridurazkoak.

Ortografia gaitasuna

- o Alfabetoa.

Gramatika gaitasuna

Diskurtsoaren antolaketa

Erreferentzia

- o Pronominalak: ni, zu, gu, zuek, hau, hori, hura, bera...
- o Leku adberbioak: hemen, hor, han
- o Denbora adberbioak: orduan, gero...

Korreferentzia

- o Ere: -Iruñekoa zara? –Ni ere bai.
- o Beste: beste bat, besterik?

Antolatzaileak

- o Hasiera: Hasteko
- o Jarraipena: gero, ondoren, jarraian...
- o Amaiera: azkenean, amaitzeko, bukatzeko...
- o Adibideak: adibidez, esaterako, esate baterako...
- o Segurantza: noski, dudarik gabe...

Perpau bakuna

• Perpau motak

- o Adierazpen perpauak, baiezkoak eta ezezkoak: Berandu da. Ez dut ulertzen...
- o Galderazkoak: Bilbokoa zara? Zenbat urte dituzu?...
- o Aginte perpauak: Itxaron! Etorri!...

- Harridurazkoak: Bai ederra! Zer ondo!...
- **Perpauseko elementuen ordena:** galdegaia baiezko, ezezko eta galderazko perpausetan.
- **Komunztadura**
 - NOR eta NORK singularra eta plurala.
 - Denbora erreferentzia eta aditz aspektua.

Perpaus konposatua

- **Koordinazioa**
 - Emendiozkoak: eta, baita...ere, ezta...ere, ere bai, ere ez
 - Disjuntiboak: edo, ala
 - Aurkariak: baina, baizik
- **Mendetasuna**
 - Konpletiboak: -(e)la
 - Kausazkoak: -(e)lako, eta
 - Helburuzkoak: -t(z)era, -t(z)eko
- **Deklinabidea**
 - Kasuak
 - ✓ NOR (absolutua): izen bereziak eta arruntak, mugagabea, singularra eta plurala; erakusleak
 - ✓ NORK (ergatiboa): izen bereziak eta arruntak, singularra eta plurala.
 - ✓ NORI (datiboa): izen bereziak eta arruntak, singularra eta plurala.
 - ✓ ZERIK (partitiboa).
 - ✓ NOREN (edutezko genitiboa): izen bereziak eta arruntak, singularra eta plurala.
 - ✓ NONGO (leku-denborazko genitiboa): izen bereziak eta arruntak, singularra.
 - ✓ NON (inesiboa): izen bereziak eta arruntak, singularra; erakusleak.
 - ✓ NORA (adlatiboa): izen bereziak eta arruntak, singularra, erakusleak.
 - ✓ NONDIK (ablatiboa): izen bereziak eta arruntak, singularra.
 - ✓ NORENTZAT (destinatiboa): izen bereziak eta arruntak, singularra.
 - ✓ NOREKIN (soziatiboa): izen bereziak eta arruntak, singularra.

Izen Sintagma

- **Izen motak:** bereziak/arruntak, bakunak/eratorriak (-(t)ar, -kide, -ari, -gile atzizkiak)/elkartuak (seme-alabak...)
- **Izenordainak**
 - Pertsona izenordainak: ni, gu, zu, zuek
 - Erakusleak: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek
 - Galdetzaileak: nor, zer, nortzuk...
 - Zehaztugabeak: inor, ezer
 - Determinanteak
 - ✓ Artikulu mugatuak: -a/-ak
 - ✓ Artikulu mugagabeak: bat/batzuk
 - ✓ Zenbatzaile zehaztuak: kardinalak (bat, bi, hiru...) eta ordinalak (lehen(en)go, bigarren...)
 - ✓ Zenbatzaile zehaztugabeak: asko, gutxi, nahiko, zenbait, batzuk
 - ✓ Zenbatzaile orokorrak: dena(k), guztia(k), oso
 - Aposizio murrizgarria: Osaba Iñaki, Lasa andrea
 - Elementuen kokapena: (det.) + (adjektiboa) + izena + (adjektiboa) + (det.)

Adjektibo Sintagma

- **Kasuak:** NOREN eta NONGO (ik. DEKLINABIDEA)
- **Adjektibo motak:** bakunak/eratorriak/elkartuak
- **Graduazioa:** askea (oso ona)/finkatua (onena)
- **Sintagmako elementuen kokapena:** (grad.) + adjektiboa + (grad.) + (art.)
- **Adjektiboa, atribuzio funtzioz.** Azterketa erraza izan da.

Aditz Sintagma

- **Aditzak**

- Trinkoak: NOR (izan, egon, ibili, joan, etorri)/NOR-NORK (ukan, eduki, jakin)
- Laguntzaileak: NOR/NOR-NORK (nor 3. per.)/NOR-NORI (nor 3. per.)/NOR-NORI-NORK (nor edo nori 3.per.)
- **Aldiak:** Oraina eta geroaldia
- **Aspektuak:**
 - Burutua: Zuk galdetu duzu hori.
 - Burutugabe iraunkorra: Goizero irakurtzen dut egunkaria.
 - Burutugabe puntukaria: Lokuzioak (ari izan, bizi izan, balio izan)/Trinkoak (autobusa beteta doa)
- **Modua**
 - Faktualtasuna: Berandu iritsi naiz gaur.
 - Beharra: behar izan lokuzioa: Botika hau erosi behar dut.
 - Obligazioa: behar izan lokuzioa (Isilik egon behar duzue)/Agintera jokatu gabe (Etorri azkar!)
 - Debekua: agintera jokatu gabe: Ez margotu zuhaitzak!
 - Borondatea/intentzioa: behar izan/nahi izan lokuzioak.
 - Gaitasuna/ezintasuna/baimena: ahal izan/ezin izan lokuzioak.
- **Sintagmako elementuen kokapena**
 - Galderazko perpausetan: izenordaina + aditza: Zergatik egin duzu hori?
 - Ezezko perpausetan:
 - ✓ Aditz trinkoekin: (IS) + ez + ad.trinkoa + (IS): Nik ez dakit ezer.
 - ✓ Aditz laguntzaileekin: (IS) + ez + ad.laguntzailea + (IS) + ad.nagusia: Jonek ez du lanik egiten

Adberbio Sintagma

- **Kasuak:** NON, NORA, NONDIK, NORENTZAT, NOREKIN (Ik. DEKLINABIDEA)
- **Adberbioak:**
 - Bakunak/eratorriak (-ta atzizkia)/elkartuak.
 - Denborazkoak (gaur, atzo, orain...)/Lekuzkoak (hemen, hor, han...)/Moduzkoak (honela, ados, astiro...)
 - Gradu adberbioak: oso
 - Adberbioa adjektibo funtzioz: Atzoko klasea.
 - Adberbio esamoldeak: gutxi gorabehera
- **Postposizioak:**
 - Atzizkirik gabe: ondoan, aurrean, erdian, atzean, gainean, azpian, barruan
 - Genitiboarekin: ondoan, aurrean, erdian, atzean, gainean, azpian, barruan, artean, ezkerrean, eskuinean

Nola ikasten da?

Ikasturte honen helburua, ikasleak hizkuntza eraginkorki **erabiltzea** da. Horrenbestez, gelako zein auto-ikaskuntza jarduerak aintzat hartu behar dute ikasleak komunikazio egoera errealei aurre egin beharko diela; hau da, ulermen, ekoizpen, elkarrekintza eta bitartekaritza egoerei. Ikasleak **hizkuntza erabiltzeko gaitasuna** gara dezan eta modu autonomoan ikas dezan estrategia ezberdinak landu beharko dira.

Ulermen estrategiak

- Hipotesiak eratzea, nor bere ezagutzetan oinarrituta eta formatua eta irudiak kontuan hartuta.
- Hotsak bereiztea eta bakoitzari zein grafia dagokion jakitea, edo alderantziz.
- Ahozko hizkuntzaren ezaugarriak jakitea (doinua, erritmoa, etenaldiak, ahots modulazioa); hiztunaren asmoa ulertzen laguntzen dutenak, alegia.
- Ahozko hizkuntzan elementu paralinguistikoei (keinuak, jarrerak...) erreparatzea eta haiek zein diren jakitea.
- Hizkuntzaren berezko eduki eta arau kulturaleri erreparatzea eta haiek zein diren jakitea.
- Hitz ezezagunen esanahia identifikatzea, alderdi hauetan oinarrituta: norberaren ezagutzak, testuaren edo esaldiaren zentzu orokorra, egoera, testuingurua, beste hizkuntza batzuen ezagutza, eta gako gramatikal eta lexikoak.
- Estrategia pertsonalak erabiltzea: gako-hitzak azpimarratzea edo idaztea, hitz zerrendak egitea, lokailu zerrendak egitea, etab.
- Hiztegia erabiltzea, hitz ezezagunen esanahiari buruzko hipotesiak egin ondoren.

Adierazpen estrategiak

- Ereduerri errepuratuta, hotsak, doinu jarraibideak eta grafia jarraibideak kopiatzea.
- Ahozko eta testu idatziak ekoiztea, ikasitako egitura linguistikoak konbinatuz.
- Estrategia konpentsatzaileak erabiltzea: adibidez, parafraseatzea, norik bere hizkuntzako hitzak erabiltzea, zernahitarako elementuak, sinonimoak, etab.
- Solaskideek emandako seinaleen bidez (okerrik gabe errepikatzea, keinuak...) norbera zuzen ala oker ari den aztertzea eta autoebaluatzea, okerrak zuzentzeko eta konfiantza handiagoa hartzeko.

Elkarrekintzarako estrategiak

- Maiz erabiltzen diren esaldi estandarizatuak ahoz nahiz idatziz erabiltzea (zorionak eman, agurtu, zortea opa izan...)
- Jaramon egitea eta solaskidearen jokabideari erreparatzea, hark esandakoa hobeto ulertzeko.
- Isilunerik ez egoteko edo komunikazioan okerrik ez egiteko estrategia konpentsatzaileak erabiltzea: laguntza eskatu, errepikatze eskatu, zerbait argitzeko eskatu, hitzekoa ez den hizkuntza erabili, gaia aldatu, esamoldeak erabili pentsatzeko astia hartzeko...
- Mezua ulertu dela egiaztatzea; solaskideari zuzentzeko eskatu, izan daitezkeen txarto ulertuak argitu.

Auto-ikaskuntza estrategiak

- Baliabide pertsonalak (testu liburua, hiztegi pertsonala, oharrak, etab.) aurkitzea eta eraginkorki erabiltzea, bai eskolan daudenak (liburutegia, baliabideen gela, etab.), bai eskolatik kanpokoak (Internet, prentsa, irratia, satelite bidezko telebista).
- Lexikoa, gramatika, etab. ikasteko oinarriko estrategiak identifikatzea eta ikasitako hizkuntza azkar eta maiz erabiltzea.
- Errazago edo gehiago ikasteko, estrategia hauek erabiltzea: konpentsatzaileak (parafraseatzea, mimika erabiltzea, etab.), afektiboak (hutssegiteak direla-eta, norik bere buruan konfiantza izatea, lan bat egiten ausartzea), eta sozialak (ikaskideekin lan egitea, jatorrizko hitzuneekin trukea egitea, etab.)
- Ikasketa eta lan teknikak garatzeko, estrategia hauek erabiltzea: memorizazio estrategiak (buruko loturak sortzea, mapa semantikoak...), estrategia kognitiboak (aztertzea, ondorioztatzea, arrazoitzea...) eta estrategia metakognitiboak (helburuak finkatzea, ezagutza berriak aurrekoekin lotzea...)
- IKTen bidezko komunikazio egoeretan parte hartzea (eskuko telefonoko mezuak, txatak, mezu elektronikoak...)
- Okerrik ohikoenak hautematea eta zergatik egiten diren aztertzea.
- Okerrak hizkuntza ikasteko prozesuan ezinbestekoak direla onartzea.

EUSKARA: OINARRIZKO MAILA 2

HELBURUAK

Zeintzuk dira Oinarriko Maila 2ko helburuak?

Oinarriko Maila 2aren amaieran ikaslea gai izango da

- Ulertzeko eguneroko bizitzako gaiei buruzko elkarrizketa sinpleak, solaskideen laguntzaz betiere.
- Identifikatu elkarrizketa baten gaia.
- Ulertzeko transakzio errazetako esaldi eta esamoldeak (banketxeetan, geltokietan, dendetan).
- Ulertzeko ideia orokorra iragarki edota mezu publiko labur eta sinpleetan (saltoki handietan, aireportuan).
- Ulertzeko oinarriko informazioa telebistako albisteetan, irudien laguntzaz betiere.
- Ulertzeko eguneroko bizitzako gai eta egoerei buruzko ohar eta mezu sinpleak (SMSak, mezu elektronikoak, postalak).

- Ulertzeko gutun pertsonal labur eta sinpleak.
- Ulertzeko eguneroko gaiet buruzko gutun formal laburrak (hoteleko erreserbak, atzerriko ikastaro bati buruzko argibideak...)
- Ulertzeko eguneroko argibide eta jarraibideak (errezetak, tresna baten funtzionamendua, joko baten arauak, Kaleetako eta dendetako idazkunak)
- Aurkitzeko eta ulertzeko informazio espezifikoak liburuxka ilustratuetan eta bestelako material informatiboetan (menuak, zerrendak, ordu-tegiak, kultura eta kirol jarduerak)
- Identifikatzeko informazio esanguratsua egunkarietako testu labur eta errazetan.
- Ulertzeko narrazio edo kontakizun labur eta errazak.
- Idazteko ohar edota mezu sinpleak, eguneroko jardura eta egoerekin loturiko informazioa, argibideak eta jarraibideak emanez.
- Idazteko gutun pertsonal sinpleak eskerrak emanez, barkamena eskatuz edo norberari buruz edo inguruko berruz hitz eginez (familia, bizitza baldintzak, lana, lagunak, zaletasunak...).
- Idazteko gutun formal labur eta sinpleak, informazioa edo zerbitzuren bat eskatuz.
- Deskribatzeko esaldi errazen bidez gertakari bat (jai bat, istripu bat...), zer, noiz eta non izan den adieraziz.
- Koherentzia emateko testuari, kausa eta denbora ordenamendurako hitz eta egitura garrantzitsuenak erabiliz.
- Deskribatzeko bere egoera pertsonala modu sinplean (bizitokia, familia, ikasketak, lana, zaletasunak).
- Deskribatzeko modu erraz eta egituratuan iraganeko bizipen pertsonalak.
- Burutzeko hartu-eman sozialak (agurtu, barkamena eskatu, norbait gonbidatu).
- Moldatzeko eguneroko transakzio eta gestio errazetan (banketxeetan, bidai agentzietan, dendetan).
- Eman eta jasotzeko informazio konkretua (esaterako, nola heldu leku batera).
- Parte hartzeko eguneroko egoera eta jardueret buruzko elkarriketetan (lana, aisialdia...) informazio konkretua trukatzuz, eskaintzak eta iradokizunak eginez.
- Heltzeko akordioetara ohiko egoeretan (hitzordu pertsonaletan etab.) eta formalagoetan (mediku kontsultetan etab.).

EDUKIAK

Zer funtzio linguistiko ikasi behar dira?

1. Informazio orokorra eman eta eskatu:

- Hitz egin klimari buruz.
- Kontatu iraganeko ekintza edo gertakari bat, eta hari buruz galdetu.
- Nork bere burua zuzendu eta zalantza egin.
- Azalpenetan, gauzak banan-banan aipatu.
- Oraina eta iragana alderatu.
- Laburpenak egin (filmak, liburuak...).
- Definizioak eman.
- Ezjakintasuna edo ezagutza adierazi gertakari baten aurrean.
- Aurreikuspenak eta iragarpenak egin.
- Planel eta proiektuet buruz aritu.
- Helburuak finkatu (asmoak eta promesak).
- Hipotesiak formulatu gertakari, pertsona, gauza edo ekintzet buruz.
- Denborazko sekuentzia adierazi.
- Hitza eskatu, eman, kendu eta besteei hitz egiten utzi.

2. Jarrerak eta iritziak adierazi eta baloratu:

- Gustuei buruzko informazioa eskatu eta eman
- Ezjakintasuna edo ezagutza adierazi.
- Osasunari buruzko eta sentipen edo egoera fisikoari buruzko informazioa eskatu eta eman: hotza edo beroa, gosea edo egarria, logura, zaporea, ongizatea edo ondoeza.
- Barkamena eskatu eta barkatu.
- Zalantza adierazi.
- Interesa edo interesik eza adierazi.
- Adostasuna edo ezadostasuna adierazi.

- Proposamen edo ideia baten alde edo kontra agertu.
- Lehentasunak adierazi.
- Hautua adierazi.
- Axola-gabezia adierazi.
- Harridura eta txundidura adierazi.
- Errukia adierazi.
- Nahia adierazi.
- Ohiko gogo-aldarte eta berauen arrazoiei buruzko informazioa eskatu eta eman: asperdura, gogobetetasuna edo nahigabea, mirespina, interesa, estimua, poza, etab.

3. Limurtzea, konbentzitzea:

- Laguntza eskatu eta eskaini.
- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman edo ukatu.
- Laguntza eskaini, eskatu, onartu edo errefusatu.
- Zerbait egitera animatu norbait.
- Lankidetzat eskatu.
- Zerbait egiteko asmo, gogo edo erabakiaren berri eskatu eta eman.
- Betebehar pertsonalak adierazi.
- Aholkuak eskatu eta eman.
- Sorospena eskatu.
- Debekuak adierazi.
- Jarduerak iradoki eta iradokizunen aurrean erreakzionatu.
- Hitzordua adostu, elkartzeko geratu.
- Aitzakiak eta desenkusak adierazi, onartu eta errefusatu, arrazoiak azalduz.
